

# Aretxagazeta

**ARETXABALETA SARIAK**

**Hiruatx Taldea  
eta Pilota Taldea  
izango dira sarituak**



**ETA GAINERA...**

**Ze barri?**

ASTEKO GAIA  
**Aurrekontuak  
onartu dira /8**

BOTEPRONTOAN  
**Filo Martínez, Aingeru  
gasolindegikoa /9**

LEINTZ GATZAGA  
**Zeraindarren  
bisita /10**



**GUARDIAKO FARMAZIA**

**ZAPATUA, 19**  
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

**DOMEKA, 20**  
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OROKORRAK**

Almen ..... 943 71 49 07  
ARETXAGAZETA ..... 943 79 86 21  
Faxa ..... 943 77 18 54  
Basotxo ..... 943 77 09 81  
Euskaltegia ..... 943 79 21 68  
Gizarte laguntzailea ..... 943 71 18 62  
Hezibide Elkarte ..... 934 79 31 32  
Industrialdea ..... 943 79 62 80  
Institutua ..... 943 79 79 00  
Kirol etxea ..... 943 71 26 28  
Kultura etxea ..... 943 71 10 27  
Kurtzebarri Eskola ..... 943 79 00 49  
Kurtzebarri BHI ..... 943 79 57 40  
Liburutegia ..... 943 71 18 62  
Loramendi EE ..... 943 77 09 70  
Ludoteka ..... 943 79 05 81  
Mankomunitatea ..... 943 79 30 90  
Murrutxo ME ..... 943 79 93 74  
Musika Eskola ..... 943 79 36 50  
Osasun etxea ..... 943 79 74 58  
Otalora ..... 943 71 24 06  
Parrokia (Bulegoa) ..... 943 79 18 42  
Pausoka Haur Eskola ..... 943 77 03 77  
Postetxea ..... 943 79 28 31  
Santa Rita Ikastetxea ..... 943 79 17 00  
Saretxo ..... 943 71 26 56  
Taxi Geltokia ..... 943 79 22 33  
Udal Bulegoak ..... 943 71 18 62  
Udaltzaingoa ..... 943 71 18 63  
Urats Gain ..... 943 79 99 11

**UDALTZAINGOA**  
Arrasate ..... 943 79 14 39

**LARRIALDIAK**

SOS Deiak ..... 112  
Eskualde Ospitalea ..... 943 03 53 00  
Ertzaintza ..... 943 79 71 99  
Gurutze- Gorria ..... 943 76 55 76  
Larrialdia ..... 943 46 11 11  
Suhiltzaileak (Onati) ..... 943 78 28 00

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domekak: 11:00, 12:00  
Zapatuak: 19:30  
Lanegunak: 19:00

**SANTA RITA**  
Domekak: 09:00  
Zapatuak: 18:30  
Lanegunak: 08:00

**BASERRI AUZOETAN: LARRIÑO**  
Domekak: 11:30

**MENDIOLA**  
Domekak: 12:30  
**GELLAO, GALARTZA, IZURIETA**  
Ez dago mezarik

**OHARRAK**

**YOGAKO HASTAPEN IKASTAROA**  
Sadhana Yoga zentroak antolatuta hastapen ikastarok egingo dira 16tik 28ra bitartean.

**TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX**  
Zapatuan, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoez antzezlanak aurkeztuko dute kirol etxean, arratsaldeko bostetan.

**IKURRINARI OMENALDIA**  
Urtarrilaren 19an ikurrina legezatu zela 25 urte beteko direla-eta, omenaldia egingo diote ikurrinari.

**ENTZUMEN ARAZOEN GAINEKO HITZALDIA**  
Entzumena zergatik galtzen dugun eta zein irtenbide aurki daitezken azalduko du Maite Menak hilaren 23an, arratsaldeko bostetan, Basotxoko telebista gelan.

**HEZKUNTZA SISTEMAREN INGURUKO HITZALDIA**  
Joanna Etxebarria hizlariak hezkuntza sistemaren gainean hitzaldia egingo du 24an, arratsaldeko zazpitan, Murrukixoko egoitzan.

**CURTISERA MARTXA**  
Kepa Urrari bisita egiteko Curtisera martxa egingo da, EPEH taldearen eskutik. Izenematea hilaren 23a baino lehen egin behar da Arlutzen edo Urbaltzen.

**LORAMENDIREN AGENDA**


**TXOMIN ETA URBIL ARTOLAREN KONTZERTUA**  
Hilaren 25ean, egubakoitzean, Txomin eta Urbil Artolak kontzertua emango dute, gaueko hamar eta erdietan udaletxe zaharrean.

**DINAMIZATZAILE BEHARRA**  
Loramendi EE-ak merkataritza arloa landuko duen dinamizatzailea behar du. Kurrikulumak Loramendira ekarri eta jasotzeko azken eguna otsailaren 1a da.

**ORAINDELA 8 URTE ARETXABALETAN**

**Loramendi Kultur Elkartearen sorrera**

1994. urtean sortu zen Loramendi Kultur Elkarte. Orduko Loramendi ikastolaren eta Beinke Kultur Elkartearen bategitearen ondorioz sortu zen. Elkarte berriaren helburua euskararen erabilera bultzatzea zen, baita gaur egun ere. Lehenengo logotipoa alboko hori duzue.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

**"Urzulua"**

Ur asko edaten duena, urzale amorratua.  
- Gure mutikua urzulo demasa da.



**LIBURUTEGIKOTXOKOA**

**'Errima errebeldeak'**

Betiko ipuin klasikoak hartu zituen oinarri Roald Dhal idazle ospetsuak, errima erabiliz, ipuin berri, moderno eta barregarri hauek osatzeko. Mari Errauskinek, adibidez, ez du printzearekin ezkondu nahi, Edurne Zurik ispilua erabiliko du aberasteko, Txanogorritxuk otso-larruzko berokial jantziko ditu...



**ERRIMA ERREBELDEAK**

Roald Dahl  
Alfaguara-Zubia  
32 orrialde

Barre egiteko liburu aproposa da, zortzi urtetik aurrera irakurtzeko modukoa. Gogoarekin geratzen denak badu aukera gaztelaniaz dagoen *Puchero de rimas* egile beraren liburua irakurtzeko, eta helduei zuzendutakoa izan arren, umeek ere oso gustura irakurriko dute.

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

**ZORIONAGURRAK**




ESKORIATZA  
**Ivan Olalde**  
14an, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako gelako lagun partetik.



ARETXABALETA  
**Nati Arkaux**  
19an. Zorionak eta muxu handia bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Luis Beltrán de H.**  
20an. Zorionak eta urte askotarako, loba guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Fernando Berrizbeitia**  
21ean. Urte askotarako! ARETXAGAZETAKO batzordekideen partetik.



ARETXABALETA  
**Adolfo Manteca**  
22an. Urtetik urtera gaitzago zaude eta... Zorionak, bezeroen partetik.



ARETXABALETA  
**Mainer Errasti**  
23an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Leire Izagirre**  
23an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

**BABESLEA**

**Zorionak denoi !!**  
Foto  
**Urkiola**  
Argazkidenda  
HERRIKO PLAZA 5  
20550 ARETXABALETA  
TELEF 943 79 39 20

- \* ESTUDIOAK
- \* EZKONTZAK
- \* JAUNARTZEAK
- \* ENMARKAZIOAK
- \* DIGITAL LANAK
- \* KAMARAK ....

Beti karretean edo albuma dohanik !!

**Eskoriatzan salgai partzelak eta etxebizitza adosatua**

Promotoreak baimendutako agentzia bakarra

**Udalatx Inmobiliaria**

Tel.: 943 79 59 99  
Faxa: 943 79 92 00  
Maalako Errabala, 27 behea-ekz.  
ARRASATE

**Mobiliario ARENAZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**IBARRA estankoa**

PRENTSA ETA IKASMATERIALA

Egunero zabalik

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77  
ARETXABALETA

**ANDRA MARI**


Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3  
ARETXABALETA  
Tel. 943 79 29 26



**ATREBENTZIAEZPADA/ Oin 25 urte ikurriña legeztatu zanienez zer egin zan akordetan zara?**




**JUAN LUIS LEKUNBERRI**  
Langillie

Aretxabaletan ez dakit ze egin zan. Ni neu Bergaran egin zan batzar inportante batera fan nitzen. Jente asko batu gitzen hantxe, eta girue bero-bero egon zan.



**MARIBEL LAZPIUR**  
Langillie

Detaille danekin ez, baiñe zeozetaz akordetan naz. Herriko plazan egin zan ekitaldixe, eta jentez goraiño beteta egon zan. Girue be oso ona, jentie pozik ikurriñie legalizau zalako.




**IÑAKI SASIAIN**  
Langillie

Ni ez nitzen Aretxabaletan egon. Ordizian nebillen lanien eta han geratu nitzen, hango ekitaldixe ikusten. Plazie beteta euen eta ikurriñie udaletxien jarri euen.



**CECILIA BARANDIARAN**  
Erretiraue

Egun politte izen zan. Jaialdi haundixe, oso politte eta emozionantie egin zan plazan. Sozidadien egon gitzen gero dantza baten ikurriñie zala eta ez zala. Emozionantie izen zan benetan.



**JUAN MIGEL IBABE**  
Langillie


Ni mutikotxue nitzen, baiñe akordetan naz plazan jaixe egin zala ikurriñie udaletxien jarteko. Horren ostien, eskolan leku danetan ikurriñiek dibujetan hasi gitzen.



**MIREN ZUAZABEITIA**  
Erretiraue

Ondo akordetan naz, emozionantie izen zan-ta. Ikurriñie bedeinketu euien, dantzariexek dantzan egin euien, eta manifestaziñue be uste dot egin zala. Ikurriñie ipiñi geuen guk etxien.

**TXALOAKETATXISTUAK**



**TXISTUAK DENDAKO ATEA ERRETA** Plaza inguruan ume eta gaztetxo asko ibiltzen da eskolatik irten ondoren. Jolasteko eta ondo pasatzeko eskubidea guztiek dute, baina komertzioek ez daukate apurketarik zertan izan. Egun batean txiza, hurrengoan kristala erre eta apurtu... errespetu falta itzelak guztiak ere. Ea noiz ikasien dugun albokoa eta albokoarenak errespetatu eta zaintzen. /M.A.

**ETABARRUAN...**

ASTEAN BEHIN /4	KIROLAK /6	NIRE BIDAIA HURA /7
<b>Literatura lehiaketa</b>	<b>Aretxabaletako Pilota Taldea</b>	<b>Sandra Barato</b>
Loramendi EEK Eskola Arteko XVIII. Literatur Lehiaketako sari banaketa egin zuen eguenean.	Aretxabaleta saria jasoko du zapatuan Pilota Taldeak, baita Hiruatx elkarteak ere.	Joan den urteko udan, Ameriketako Estatu Batuetako Utah estatuan izan zen Sandra hilabete pasatzen.

**ASTEKODATUA**

**2.500**

**GIDA KOMERTZIAL BANATUKO DIRA HERRIAN**

Leintz Gatzagako, Eskoriatzako, Aretxabaletako, Arrasateko eta Aramaioiko komertzio, enpresa eta taberna guztien berri ematen duen 2002. urteko gida kalean da dagoeneko.


**BESTEKEESANA**

**Zaraia zinema dagoen lekua aztertu zen iaz, proiektua enkargatu ere egin zen eta egiten hasi, baina goldiunea egin genuen hausnartzeko. Orduan, beste ideia bat sortu zen, ez zitzaigun txarra iruditu eta aretoaren edo zinemaren proiektua gaur egun kuartela dagoen lekuan egiteko da. Ideia da kuartela behingoz bota eta herriari sarrera duinagoa ematea.**

**Kuartelaren eraikina ez litzateke mantenduko, alde batetik, zatarrak delako, kuartel bat da, eta bestetik, segurtasun neurri minimoenak ere ez dituelako betetzen. Badago txosten tekniko bat orain dela hamar-hamaika urtekoa non aholkatzen den hori botatzea. Ez da jausi oraindik, baina ez nuke jausterik ere gura.**

**ANJEL BERGARETXE**  
GOITB/02-01-09

**HERRITARRENBERBAK/ Lore Abarik**



*Papa Nöeli txapela gorde behar diot*

**G** abonak aspaldi joan zitzaizkigun, hama-bost egun pasatxo, eta badakit urte berriarekin gauza berriez hitz egin beharko genukeela. Hainbeste lan ematen ari den euroa edo urte berrirako dauzkagun intenzio onak izaten dira hizpide urteko lehenengo egunetan, baina azken Gabon hauen ostean arduratuta utzi nauen gauza batetaz hitz egitea pentsatu dut.

Bai, 2001eko Gabonetan Papa Nöelekin kokoteraino bukatu nuen. Opariak erostera atera nintzenetan, toki guztietan ikusi nuen zuri-gorritz jantzitako Papa Nöel. Denda atarietan umeei gozokiak ematen eta, zer esanik ez, denda barruetan: Papa Nöelen gorroa, Papa Nöelen zapata, Papa Nöel eskua mugitzen, Papa Nöel abesten, Papa Nöel... enpatxatuta bukatu dut! Eta gure Olentzero? Beno eta gu, aretxabaletarrok, ezin gara kexatu, gure herrian ondo dakigu gure

kultura gorde eta bultzatzen (eskerrak!). Baina kontatzen dizuedan hau guztia Euskal Herrietik mugitu gabe bizi izan dut eta oso tristea iruditu zait. Ez dakit, geurea bultzatu beharrean eta kontatu nola guk badaukagun Berri Ona zabaldu eta opariak ekartzen dituen

**“Gero, beti daude, hizkuntza eta kasu honetan kultura, beti politikaz nahasteko ohitura dutenak”**

Olentzero, ematen du atzerritik datorren Papa Nöel toki batzuetan baloratua goa dagoela-edo.

Gero, beti daude hizkuntza eta kasu honetan kultura, beti politikaz nahasteko ohitura dutenak. Hor daukagu Savater, Olentzeroz galdetu eta bera Olentzeroz fidatzen ez dela adierazi duena... egia esan, ez dakit hau komentatzeak ere merezi duenik

Bestalde, eta bukatzeko, badakit etorkin guztiek dutela gure ongietorriaren beharra, baina kulturari dagokionez, herri bakoitzak berea bultzatu behar du, hor baitago herrien aniztasun eta aberastasuna.

Ba horixe, besarkada bat Olentzerori.





Zapatu borobila

Urtarrileko aldatsa gogorra dela eta baten batek asper-tu egin behar dela pentsatu badu oker dabil, oso oker ibili ere. Inoiz baino ekintza gehiago ditugu, agendako txokoan ere kabitu ezinik dabilta, eta hori oraindik zine aretorik ez daukagula. Batetik, ikurrina legez-tatu zeneko 25. urteurrenaren inguruan antolatu diren ekintzak, bestetik, **Aretxabaleta Sarien** banaketa **Hiruatz-i** eta **Pilota Taldeari**, lau urtean ez ote da egon saria merezi izan duen inor?, eta umeentzat **Takolo**, **Pirritx** eta **Porrotx** pailazoaren ekitaldia. Dena zapatuan, gainera. Aukeratu egin behar nora joan gura dugun, beste-la... Astean ere izango da zer ikusirik, hitzaldiak, diaporama, kontzertuak... Ez dela gero ezer antolatzen? Ikusi egin behar orain nola erantzuten dugun herritarrok.

Bukatzeko, zorionak loteria tokatu zaionari. Bueno, ez dakit bakar-ra edo bat baino gehiago diren, saria oster-a potolo-potoloa, 2.043.441,15 euro. Zurrumurrurak zurrumurrur-disfruta dezala sariarekin. **Gotzone Arrese** ere zoriontzera noa, ez dirua tokatu zaiolako baina bai etxebizitza. Ordaindu egin beharko du, ondo ordaindu ere, baina gurasoen etxetik ateratzeko zerbait egin behar. Ez dago ez samur!

M. J. Aretxaga

EUSKARA/ 175 lan aurkeztu ziren, eta horien artean poesia bakarra eta zortzi grabaketa

# Loramendi Literatura Lehiaketako sari banaketa

MIRARI ALTUBE

Eguenean banatu ziren eskola arteko XIII. Loramendi Literatura Lehiaketako sariak. Kurtzebarri eskolako eta Almen ikastolako ikasle aretxabaletarren ipuinak, poesiak, eta grabaketak abenduan jaso ziren. Orain, onenek saria jaso dute.

Gaztetxo eta guraso ugari elkartu zen egunean udaletxe zahar-rean, 2001eko Loramendi Literatura Lehiaketako sari banaketa-n parte hartzeko. Udaleko ordezkariak eta Josu Sarasua Loramendi Euskara Elkarte-ko presidentek eman zizkieten sariak ipuin, poesia eta grabaketa onenei.


**LAN KASKARRAK**

Guztira 175 bat lan aurkeztu ziren abenduan, eta horietatik zortzi baino ez dira izan grabaketak. Epaimahai lanak Loramendi EE-ko kideek, ARETXAGAZETA-ko langileek eta hainbat herritarrek bete dituzte, eta euren esanetan, lanen mailak behera egin du. "Aurkeztutako lanen maila nahiko kaskarra da, ez bakarrik euskara aldetik, baita imajinazioari dagokionez ere. Batak besteari kopiatutako ipuin bat baino gehiago jaso dira", dio Loramendi EEko dinamizatzaile Nerea Elortzak.

**POESIAK ETA IPUINAK**

Lehen Hezkuntzako ikasleek poesiak edo ipuinak aurkez zitzaketen. Poesia bakarra aurkeztu da, *Handitzen ari naiz eta*, eta lehengo saria jaso du egileak, Maddi Bengoetxeak. LHko 2. zikloko D ereduko onenak Martin Berrizbeitiaren *Otsoak eta oiloak lizkarrean*, Ainhoa Sanzen *Txindurria eta elefantea* eta Lide Pagaldaireren *Sagu Bidaiaria* izan dira. Murgiltze ereduan, berriz, Jon Ander Azkoitiaren *Bide errezena*, Odei Vázquezen *Hiru txakur galduta* eta Leire Pascualen *Gizon lodia* ipuinak saritu dituzte epaimahaikoek.

Lehen Hezkuntzako 3. zikloan ere beste horrenbeste sari banatu



Ipuinak, poesiak eta grabaketak, guztiak saritu zituzten egunean.

*Guztira 175 bat lan aurkeztu ziren, eta horietatik zortzi bakarrik izan dira grabaketak*

dituzte. D ereduan Jon Barrene-txearen *Ametsen harria*, Beñat Etxaberen *Andoni musikari eskal-taizalea* eta Markel Uriarteren *Argitxu txakur berezitu* izan dira onenak, eta murgiltze ereduan Ane Garciaeren *Liburu lehiaketa*, Sandra Labradorren *Jimmy itsa-soan* eta Garazi Barberoren *Miren eta Pipi bere txakurra*.

**NAGUSIEI GRABAKETAK**

Derrigorrezko Bigarren Hez-kuntzako ikasleek, bestalde, gra-

baketak egin dizkiete nagusiei. Bigarren zikloko grabaketa one-nak Kattalin Antxiaren *Amama Xole*, Lide Marren *Miren Urreta* eta Andere Etxaberen *Markelin Mendieta* izan dira. Bigarren zikloan, bestalde, *Aramaioko lana* aurkeztu duen Ane Mondrago-nek, *Francisca Sasiain* aurkeztu duen Leire Lozanok eta *Karme-le Unzueta* aurkeztu duen Mirian Duranek jaso dute saria. Gazte-txo horiek elkarrizketatu dituz-ten nagusien artean ere onena aukeratu dute, eta Miren Urreta aretxabaletarra izan da, hain zuzen ere.

Lehen Hezkuntzako sarituek erosketa-txartelak jaso dituzte sari gisa. Erosketa-txartel horiek herriko dendetan truka daitez-ke. Hala ere, parte hartzaile guz-tiek jasoko dute oroigarria ondo-rengo egunetan. DBHko irabaz-leek, oster-a, dirua jaso zuten sari gisa.

**LABUR**

**Bi milioi euro baino gehiago tokatu dira Loteria Primitiboan**

Joan den egunean, bi milioi euro baino gehiago -340 milioi pezeta inguru- tokatu zitzaizkion Iber loteria administrazioan zigorreko jarritako apustu bati. Irabazlea aretxabaletarra izango delakoan ustiatzen den arren, loteria administrazioan, momentuz, irabazleak ez du agertu gura izan.

**Gotzone Arresek lortu du enkantera ateratako etxea**

Enkantera atera zituen etxebizitzaren eta garajearen aldeko diru eskaintzak zabaldu zituen Udalak astelehenean. Gotzone Arrese gazte aretxabaletarrak egin zuen eskaintzarik handiena: 38.060.000 pezeta. Ondorengo egunetan egingo den osoko bilkuran emango dizkio Udalak.

**San Bizente eguna ospatuko dute Areantzan**

Areantzako auzotarrek San Bizente eguna ospatuko dute urtarrilaren 22an. Arratsaldean, 16:45ean, auzoko soinu-joleekin ongi etorria izango da 17:00etan, bestalde, meza esango da San Bizenteko ermitan eta gero, Garaikoraino joango dira, hantxe solasaldia egiteko.

**'Gida 2002' banatzen dabilta egunotan herrian**

2002. urteko gida komertziala kalean da dagoeneko, eta aste honetan bertan ari dira banatzen. Komertzio, taberna eta enpresetan banatu ostean, etxetara ere helduko da. Hala ere, norbait ez balitzaio helduko, pasa dadila ARETXAGAZETA-tik edo dei dezala 94792100 telefono zenbakira.

**ARQUERO**  
**CONSTRULAN S.L.**

Zuzendaria:  
**Lyonel Arquero**

Dekorazioa:  
**Soraya Arquero**

**ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK**

Tel.: 943 79 01 5  
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

**JOSU HARATEGIA**

Urdaitegia-Gozotegia  
kroasantegia  
Janari prestatuak

Mitarte kalea  
ARETXABALETA  
943 77 03 08

**Miren & Zuriñe**

Bitxitegia • Erlojudenda  
Bitxiñen diseinua  
Bitxiñen konponketa

Otalora, 4 (eliza aurrekaldean)  
Tel.: 943 77 13 57  
ARETXABALETA

**IRIARTE**

Umeen denda eta lentzeria

Durana, 8  
Tel.: 943 79 10 96  
ARETXABALETA



# Hiruatx Taldeak eta Pilota Taldeak jasoko dute Aretxabaleta saria

MIRARI ALTUBE

Udalak Aretxabaleta sariak banatuko ditu zapatuan. 1997an banatu zituen lehen aldiz, eta aurten, sariok banatzen dituen bigarren aldia izango da. Hiruatx Taldeak eta Pilota Taldeak jasoko dute saria.

Zapatuan, arratsaldeko sei eta erdietan, Aretxabaleta sariak banatuko dira Udaletxe osoko bilkuren aretoan. Hiruatx hirugarren mundu taldeari eta Pilota Taldeari emango die saria Udalak, urte askoan isilean egindako lana eskertu guran.

## 1997AN BAKARRIK EMAN DIRA

1996. urtean hainbat aretxabaletarrek egindako lana eskertu guran, 1997ko otsailan eman zituen lehenengo aldiz Aretxabaleta sariak Udalak. Bostek-gizabanako zein talde-jaso zuten saria orduko hartan: Inurrategi anaiek, nagusien eta gaztetxoek akordeoi orkestrek, Joseba Larrinagak eta UDA elkarteak. Hala, urtean egindako lana, lortutako garaipenak eta Aretxabaletaren izena kanpora zabaldu izana eskertu zien Udalak.

1997an banatutako sari hura urtero errepikatzen asmoare-



MIRARI ALTUBE  
Brontzezko irudia jasoko dute sarituek.

*Hiruatx-ek eta  
Pilota Taldeak  
jasoko dute, urte  
askoan isilean  
egindako lanagatik*

kin sortu zen, baina geroztik ez da sekula gehiago egin. Aurten, oster, Anjel Bergaretxe alkateak saria berreskuratzeko gogoazaldu zuen, eta udalbatzaren laguntzarekin aurrera egitea erabaki zuen. Hortaz, aurten, bigarren aldia izango dute Aretxabaleta sariak.

## BRONTEZKO IRUDIA

Udaletxea eta Andramariaren Zeruratzeko parrokiaren batzen dituen brontzezko irudia jasoko dute Hiruatx Taldeak eta Pilota Taldeak. Hala eskertu gura du Udalak haien lana.

Hiruatx Taldeak hamar urte bete berri ditu. Tarte horretan, zazpi proiektu gauzatu ditu Afrikan, Asian, Hego Amerikan eta Ertamerikan. Elkartearen ibilbidea laburbiltzen duen liburuxka ere kaleratu zuen abenduan, egindako lanak aipatzeko eta elkarteak lagundu duten herritarrek eskertzeko. Pilota Taldeak, bestalde, urte askoan egin du lan herriko gaztetxoekin. Iaz, gainera, herri arteko txapelketako finalera heldu zen.

Biek hala biek ondo merezi dutela saria uste du Aretxabaletako Udalak, eta zapatuko sari banaketarekin horixe berretsi-ko du.

## TXUTXUMUTXUA



## Elikaduraren inguruko hitzaldiak eskolan

Elikaduraren gaineko hitzaldiak izan zituzten Kurtzebarri eskolako ikasleek joan den egun eta egubakoitzean. Elikadurak hazten diharduten gazteengan duen garrantzia ohartuta, Elhuyar taldeko Arantza Lorenzo, elikaduran aditua, ekarri zuen eskolara. Eguenean, elikadura orekatuaren inguruko hitzaldia egin zuen. Egubakoitzean, oster, elikadura desegokiaren ondorioez berba egin zien eskolan batutako gaztetxoei Arantzak. /MIRARI ALTUBE

## KUTXA-REAL SOCIEDAD TXARTELAK Oso Realzaleentzat bakarrik



Zu bezalako pertsonentzat, Reala oso modu berezian sentitzen dutenentzat, pentsatuak daude Kutxa-Real Sociedad Maestro eta MasterCard txartel berriak. Txartel hauek erabiltzeagatik, prestazio finantzario guztiez gainera, opariak ere lortu ahal izango dituzu. Anoetako partiduetarako sarreraren zozketan parte hartu, eta bi pertsonarentzako bidaia baten zozketan ere bai,

gure taldea bere desplazamenduetako batean laguntzeko.

Gainera, 2002ko otsailaren 1a baino lehen eskatu eta erabiltzen baduzu, CD zoragarri bat, Txuri-Urdin abestiaren 5 bertsio berezi biltzen dituen, eramango duzu opari.



Eskatu kutxaren bulegoetan edo [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) helbidean.

**kutxa**

zure diruaren balio erantsia

**Zenbaki**

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

## Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA  
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

**BASABE**

jatetxea

Basabe bidea z/g  
Tel.: 943 79 91 84  
Aretxabaleta

**M**

**MEMESA**

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11 / Fax: 943 71 21 19  
ARETXABALETA

Jou Díaz

Harakina

Loramendi, 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA



# Pilota Taldeari urtetan egindako lana eskertu gura diote zapatuan

MIRARI ALTUBE

Aretxabaleta saria jasoko du Pilota Taldeak zapatuan, Hiruatx elkartearekin batera. Urte askoan, herriko neska-mutikoekin egindako lana eskertu gura diote Pilota Taldeari. Iaz, gainera, herri arteko pilota txapelketako finalean izan ziren pilotariak.

UDA elkartearen barruan dagoen Aretxabaletako Pilota Taldeak Aretxabaleta saria jasoko du zapatu arratsaldean Udalaren eskutik. Saria emateko arrazoiak izan dira pilotarako zaletasuna bultzatu izana eta urte askoan herriko gaztetxoekin isilean egindako lana. Iaz, herri arteko pilota txapelketako finala jokatzera heldu ziren herriko pilotariak.

## 50 BAT NESKA-MUTIKO

Urte asko dira Pilota Taldea abian jarri zela. Gaur egun, presidentea Mikel Uribebarria da, arduraduna Juan Mari Errasti eta batzordekideak, berriz, Jesus Kortabarría, Jose San Migel eta Felix Altube. Pilota Taldean neska-mutiko asko dabilta, berrogeita hamar bat guztira, eta ia egunero, eskolen ondoren, Jose San



Gabonetako Txapelketako txapeldunak eta txapeldunordeak, pozaren pozez, sariekin.

Migelekin batzen dira Iturrigorri frontoian. Dakien guztia erakusten saiatzen da hura; izan ere, teknikaz gain, pilotarekin gozaten jakitea oso garrantzitsua da.

Azken hiru urteak, gainera, pozgarriak izan dira taldearendako. Aurreko bi urteetan herri arteko pilota txapelketako finalerdietaraino heldu dira pilotari gazteak, eta iaz, finalean izan genituen. Urte askoan egunero egindako lanaren eta

sakrifizioaren emaitza izan zen.

Iazko San Migel jaietan Jose San Migel entrenatzaileari omenaldia egin zioten, 'gaztetxoekin egiten ari den lana eskertzeko. Aspaldi esan zuen Josek Pilota Taldea utzi gura zuela, baina ordezkorik ezin topatu dabilta; hala, bitartean, hark jarraitzen du lanean. Sari horrekin, Aretxabaletako Udalak lanean segitzera animatu gura ditu batzordeko kideak eta pilotariak.

## FUTBOLA

### Preferenteko taldeak jokalaria bat fitxatu du eta bigarren bat ere ekarri gura du UDAk

Aitor Berraondo 22 urteko antzuolarra da preferenteko jokalaria berria, eta erdialdean jokatuko du. Taldeak hainbat jokalaria ditu min hartuta, eta, horren ondorioz, kanpotik jokalaria ekarri beharrean izan da UDA elkarteak. Bigarren bati begira ere badabil, eta datozen egunetan jakinaraziko dute haren izena. Domekako partidua hasi aurretik, bestalde, omenaldia egingo diote ikurrinari.

## FRONTENISA

### Debagoieneko 2001eko Frontenis Masterra jokatu zen aste bukaeran Aretxabaletan

Joan den aste bukaeran, 2001eko Debagoieneko Frontenis Masterra jokatu zen herrian. Parte hartzaileen artean ez zen aretxabaletarrik izan, bergararrak eta oñatiarrak ziren gehienak, eta irabazleak Jose Izquierdo eta Candido Hurtado izan ziren. Laster, 2002ko masterra jarriko da abian, eta Aretxabaletan pala txapelketarekin emango zaio hasiera.

## KARTELDEGIA

### FUTBOLA

**UDA-Trintxerpe**  
Preferentea.  
Domeka. 16:30. Ibarra.  
**UDA-Urki**  
Bigarren mailako erregionala.  
Zapatua. 16:00. Ibarra.

### PILOTA

**Aretxab. (2)-Aldazpe**  
Lehenengo mailako gazteak.  
Zapatua. 18:00. Iturrigorri.  
**Aretxab.-Zurriola**  
Bigarren mailako kadeteak.  
Domeka. 12:00. Iturrigorri.

## EMAITZAK


### FUTBOLA

**Berio 3 UDA 0**  
Preferentea.  
**Zaramaga 4 UDA 2**  
Gazteen Euskal Liga.  
**Oartzun 4 UDA 2**  
Bigarren mailako erregionala.  
**UDA 4 Eibarko Alg. 5**  
Bigarren mailako gazteak.  
**UDA 2 Mutriku 0**  
Lehenengo mailako kadeteak.  
**Oartzun 3 UDA 2**  
**UDA 1 Urnieta 1**  
Bigarren mailako kadeteak.

### PILOTA

Udaberriko Torneoa  
**Aretxabaleta (1) 22**  
**Añorga (2) 14**  
Lehenengo mailako gazteak.  
**Beharzana 12**  
**Aretxabaleta (2) 22**  
**Txapagain 16**  
**Aretxabaleta (1) 22**  
Lehenengo mailako seniorrak.

# OSASUN GIDA



## ARETXABALETAKO

### DENTISTAK:

#### ■IMANOL ARRAZOLA OTXOA

Mediku-dentista  
Otalora, 18-1D. Tel: 943 79 93 55

#### ■ANGEL BENGEOA SAN MIGUEL

Mediku estomatologoa  
Durana, 14-1. Tel: 943 79 05 57

### MASAJEAK:

#### ■FLOREN ELORTONDO

Masajeak eta osteopatia  
Basabe industrialdea, Pab D z/g  
Tel: 629 77 85 84 / 943 79 46 20

#### ■LASAI MASAJEAK

Mirian Manteca masajista  
Osteopatia kraneala: estrukturala eta funtzionala, lotura muskularrak  
Aurrez lekua eskatu: 943 77 04 34

#### ■ZAINDUZ OSASUN ETA FITNESS ZENTRUA

Kirol eta osasun zerbitzuak:  
banakako fitness programak, masajeak...  
Hilargi plaza, 6. Tel: 658 75 80 12

### ■EIN FISIOTERAPIA ZENTRUA

Errehabilitazioa, masaje terapeutikoa, akupuntura, osteopatia.  
Belorrieta, 6-7. Tel: 943 79 95 64

### ■PSIKOPEDAGOGOAK:

#### ■LEBER KABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA

Hezkuntza arazoetan diagnostikoa eta tratamendua  
Basabe industrialdea, C3-3.  
Tel: 943 79 56 98

### ■PARAFARMAZIAK:

#### ■FARMA BIZI PARAFARMAZIA

Maitane Urrutia Yurrebaso farmazilaria  
Loramendi, 8. Tel: 943 77 18 18

### ■YOGA:

#### ■SADHANA YOGA ETA PSIKOTERAPIA

Yoga, bioenergetika eta psikoterapia  
Lezama komertzial zentrua  
eta Santa Kurtz, 24. Tel: 61 965 795

## ESKORIAS

### ■FARMAZI:

#### ■BOTIKA LDA. M. D. AGUIRRE PAGALDAY

Homeopatia, dermofarmazia, formula magistralak  
Eduardo Gorosarri plaza. Tel: 943 71 48 28

### ■DENTISTAK:

#### ■ENRIKE MAZMELA BOLINAGA

Hortz klinika  
Eduardo Gorosarri, 3-1. Esk.  
Tel: 943 71 47 36

### ■ORTODONTZIAK:

#### ■AGUSTIN GOROSARRI BARBARIAS

Protesiko dentala: ortodontzia  
Arana, 20-2.esk. Tel: 943 71 44 36



MUNDUTARRAKARETXABALETAN

CAMILA MEJÍAS HERRERA

LANGILEA / KUBA

“Kubatarrak eta euskaldunak aberriari diogun maitasunak batzen gaitu”

AMAGOIA LASAGABASTER

Ciego de Avila probintziako herri txiki baten jaio zen. Badira hiru urte semearekin batera Euskal Herrira etorri zela, Bergarara, hain zuzen, familiak lagunak zituen-eta Bergaran. Orain dela urtebete inguru, ostera, Aretxabaletan etxebizitza topatu eta hona etortzea erabaki zuen, senargaiarekin batera, eta Eroskin hasi zen lanean: “Iraila ezkeronabil Eroskin lanean, eta oso gustura nago, den-dako lana atsegin dut-eta. Hala ere, Medikuntza ikasketak egin nituen Kuban eta horretan lan egiterik izango banu, munduko zorionsuena izango nintzateke”. Euskaltegira ere joaten da Camila. Bigarren urtea hasi arren, lehenengo mailan jarraitzea eskatu zuen, oinarriko hutsunak zituela konturatu zen-eta.

Kubatarrak eta euskaldunak oso ezberdinak bagara ere, orokorrean jende jatorragara: “Beti egia esateko joera daukazue, eta nik ezagutzen ditudanek ez dakite gezurrik esaten. Lotsatiak izan arren, ez zarete itxiak, oso lagunkoiak zarete, beti gertu bes-teari laguntzeko”.

Sarritan Kubako lasaitasunaren falta igartzen badu ere, hemengo bizimodu azkarrera ohitu da dagoeneko. Hemengo jateko era biziki atse-

gin du, eta batzuetan hango jakiak prestatzen ditu. Hala ere, gehiegi jaten dugula dio: “Lehen aldiz mahai gainean hainbeste janari ikusi nuenean, begiratuta bakarrik bete nintzen”. Kubatarren eta euskaldunen artean kimika bere-


“Beti egia esateko joera daukazue; nik ezagutzen ditudanek ez dakite gezurrik esaten”

zia dagoela dio; aberriari maitasuna izan daiteke batzen gaituena, baita bata bestearen kulturarekiko errespetuak ere: “Dendan euskaraz berba egiten diodan euskaldunari izugarritzko ilusioa egiten dio, eta zergatik ez egin. Ez da bate-re kostatzen”.

Ez daki nora erango duen etorkizunak, baina badaki Kubara itzultzea oso zaila izango dela. Gure artean oso gustura dago Camila, eta h e m e n g e d i t z e a e r e e z z a i o b a t e r e i d e i a t x a r r a i r u d i t z e n .



HURRETIK



Mikel Arroiabe

‘Goienkaria’-ko komikigilea eta irakaslea

Gaztetatik beteten zittuen Mikelek Kimikako liburuek marrazkixekin. Gerora, Biologiako liburuek hartu zittuen, eta horreik ez pintau arren, sekule be ez dau afiziñue albora itxi.

Noiztik pintetako afiziñue?

Noiztik? Gogoratu be ez naz egitten... Betidanik, esango neuke.

Eta Biologia noiztik gustetan jatzu? Eskolie bukatetarakuen egindako aukerie izen zan. Gaiñera, irakaslien artien maixurik onena Biologiakue izen zan, eta horrek be eragina euki euen.

Eta oin irakasle zara, ezta?

Bai. Biologo moduen ez dago lanik, eta irakasle izeteko gertatu nitzen.

Hiruretatik, zein gogokuen?

Irakasle lana. Ezin izengo neuke pintau barik bizi, baiñe irakasle izetie asko gustetan jat.

Ikasle ala irakasle hobia zara?

Irakasle hobia, uste dot.

Zigorrik jarten dozu?

Bai, batzuetan biherrezkuek izeten die, ez da pedagogikue, baiñe...

Ubarroi natura taldie bizirik dago?

Ez, Gabonetako liburue atara dogu, baiñe bi taldekidiok beste lan batzuetan gabitz eta ez daukogu ezer egitteko aukerarik.

‘Goienkaria’-ko komikixek be egitten dittuzu. Nundik sortu die ‘Olatz’ eta ‘Patxi’?

Neure imajinaziñotik. Bi pertsonaje bata bestiangandik guztiz diferentiek egitten ahaleginddu nitzen.

Komikixetako pertsonaje bat?

TMEO-ko Herminio Bolaextra eta Asterix eta Obelix.

Ohittu gare eurora?

Bai, biherko.

Ze eskatu dutzezu 2002. urtiari?

Ointxe arte moduen jarraiketie.

A.L.

NIREBIDAIAHURA/ Sandra Barato

Ameriketako Estatu Batuak / 2001eko uda

Ingelesa ikasteko asmoarekin joan zen Sandra Ameriketako Estatu Batuetara. Lehenengo bidaia 2000. urtean egin zuen, Utahra. Orduan, Sandrak gerora 2001. urtean berriro ere Ameriketako Estatu Batuetara joateko arrazoia ezagutu zuen, amerikar familia zoragarri bat, hain zuzen ere. Izan ere, haien gonbidapena jaso eta gero egin zuen azken bidaia Sandrak. Eta ez zen nolana hikoia izan: “Dagoeneko konfiantza neukan familiarekin, hortaz, gonbidapena jaso nuenean, hegazkin-txartela erosi eta ez nuen bi aldiz pentsatu: berriro joan nintzen Ameriketako Estatu Batuetara.”.




“Uztailaren 4a oso garrantzitsua da haiendako”

“Las Vegas izugarri handia da; asko harritu ninduen”

Sandra guztiz sartu da estatubatuarren bizimoduan. Hango familia batekin bizi izateaz gain, Utahko arrantxo baten bizi izan zen. Horrez gain, familiako aita cowboy-a da eta alaba, berriz, cowgirl-a; biak ere, rodeoetara joaten diren horietakoak. Baina Sandrak beste ohitura yanki bat ere ezagutu du, uztailaren 4koa, hain zuzen ere: “Uztailaren 4a oso egun garrantzitsua da haiendako. Egund osoan desfileak izaten dira, eta gehienak Ameriketako Estatu Batuetako banderaren koloreekin jantzen dira. Gainera, egun horretan etxean bazkaldu eta afaltzen da, eta hori nahiko arraroa da; izan ere, estatubatuarrek ez dira oso sukaldetzaleak”.

Sandra ez zen Utah-n bakarrik egon, bidaia turistiko txiki bat ere egin zuen. “Las Vegas, Los Angeles eta Kaliforniako beste hainbat leku bisitatu nituen”. Gehien Kalifornia alde gustatu bazitzaion ere, Las Vegasekin harrituta geratu zen. “Filmetan ikus daiteke nolako handia den, baina han egonda, izugarria iruditu zitzaidan Las Vegas”. New York ere ikusi zuen, baina oso urrutitik; eta Sandrarendako pena handia izan zen Dorre Bikiak gertutik ikusi ez izana.

A. L.



Laguna Beach izeneko hondartza, Kalifornian.

Zubia  
oinetakoak



beherapenak!

Mitarte 14 • 943 79 16 00  
ARETXABALETA  
Biteri 1 • 943 79 66 53  
ARRASATE

BENGOA  
URDAITEGIA

Bertako okelak  
eta mortzilak

Durana, 9. Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 19 79

GARBITU S. KOOP

Garbiketa  
orokorrak

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALETA  
Tel: 943 79 01 28

Lezama  
BIDEO KLUBA

Zure gustoko zinema!

Santa Kurtz 24  
ARETXABALETA  
943 79 33 95



# Zebarri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko urtarrilaren 18a / 64. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana, 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com

## Sei milioitik gorako aurrekontuak onartu ditu bigarren ekitaldian Udalak

AINTZANE GARDOKI

Bigarren ahaleginean udalbatzak onartu egin ditu aurtengo aurrekontuak. Joan den astean onartu behar bazituen ere, EA alderdiak jarritako zuzenketa batzuk ez ziren garaiz heldu EHko zinegotziengana. Asteazkenetik zuzenketa aztertu, eta onartu egin dira aurrekontuak.

Udalbatza martitzenean batu zen, bigarren aldiz. Ezohiko bilkura izan zen, eta helburua, 2002. ekitaldiko aurrekontuak aztertu eta onartzea. Edorta Zubizarreta alkatearen arabera, "irailean hasi ginen batzorde bakoitzari aurtengo urterako dituzten proposamenak eskatzen".

Guztira sei miloi eta bostehun mila eurotik gorako aurrekontua onartu da. Ezker Batuko zinegotziek izan ezik, Udala osatzen duten gainerako ordezkariak eman zieten baietza proposatutako aurrekontuei.



Martitzenean onartu ziren 2002. urteko ekitaldirako aurrekontuak.

### INBERTSIOAK NAGUSI

Hainbat ataletan banatu dira aurtengo aurrekontuak. Eta horietatik langile eta funtzionamendu gastuek zati handia hartzen badu-

te ere, alkatearen esanetan, "inbertsioak egiteko erabiliko da diru zatirik handiena. Udaletxe zaharra berregiteko lanak egin behar dira, eta geltoki zaharreko

urbanizazioa ere hor daukagu egiteko. Liburutegi berriko lanak ere laster hasiko dira, eta Museo Eskola lekuz aldatzeko Iba-rraundi baserriko zaharberritze

lanak ere aurtengo aurrekontuetan sartu ditugu". Udaleko giza baliabideen arrazionalizazioaren plana eta 2002ko lan- eskaintza ere onartu zituzten.

*"Bigarren ahaleginean onartu ditu Udalak 2002. urteko ekitaldirako aurrekontuak"*

*"Ezker Batuak kontrako botoa eman zuen. Beste alderdiek bat egin zuten"*

*"Alkatearen arabera, zatirik handiena inbertsioak egiteko izango da"*

## ATREBENTZIAEZPADA/ Zertan gastatu beharko luke diru gehiago Udalak?



**OIER ESKIBEL**  
ikaslea

Gauza asko izango ditu egiteko Udalak, baina, gazte naizen aldetik, gazteendako ekintzetan. Gaztetxe eta zinema txukun bana egiteko eskatuko nieke Udaleko arduraduneri.



**JUSTO GURRUTXAGA**  
erretiratua

Auzoez gehiago arduratzea eta etxebizitzaren inguruan politika indartsua osa dezala, beharra handia da-eta. Gazteak ezin erosi ari dira; errentan emateko egin dezala ahalegina.



**DORLETA GABILONDO**  
irakaslea

Gaztetxoendako ekintza gehiagotan eta haiendako egokitutako lokaletan. Hezkuntza arloan, herriko eskola guztiei dirulaguntza berbera eman beharko lieke Udalak.



**FLORENCIO CASTAÑEIRA**  
erretiratua

Kaleak konpontzen, espaloi asko eta asko aske edo hondoratuta daude, eta nagusiondako arriskutsua izaten da. Bestalde, aparkaleku gehiago behar dira, nire ustez.



**AURORA MARTÍN**  
langilea

Aparkalekuetan. Eta garbitasunean, gero eta zikinago dago-eta guztia. Herriak itxura hobetu badu ere, oraindik gauza asko eder daitezke, berdegune gehiago jarrita.



**LORE DÍAZ DE GEREÑU**  
langilea

Umeetan eta gazteetan. Txikitatik motibatu behar dira horregatik, udaleko modura, urte osoko ekintzetan inbertituko nuke. Eta etxeko bizitza politika sendoagoa herriko egoera hobetzeko.



**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**ESKORIATZA**

Udaletxea	943 71 44 07
Udal Bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana-Almen Ikastol.	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxia	943 71 40 59

**BESTELAKOAK**

Eskualde Ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
Pesa (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

**OHARRAK**

**ERROLDIA OSATZEN**

Datorren urtarrilaren 25a bitartean, erroldarako datuak eman ez dituztenek kultura etxeko bigarren solairuan eman beharko dituzte datuak. Familia bakoitzetik pertsona bakarra joan ahal izango da, baina familiako kide guztien nortasun agiriekin.

Bulegoaren ordutegia: 11:00-14:00 eta 18:00-20:00. Zapatuan goizez egongo da zabalik.

**'SOBRE LOS PERJUICIOS DEL TABACO' ANTZERKIA**

18an, 22:30ean, HUHEZIKO areto nagusian, Ramon Barearen bakarriketa.

**AXTROKIRENAGENDA**

**BAZKIDE KANPAINA**

Bazkide kanpainan 15 bazkide berri lortu ditu euskara elkarreak. Guztira 80 bazkide ditu, eta asko ez bada ere, lanean animoz jarraituko dutela diote arduradunek.


**EUSKARA**

**Euskararen transmisioaren garrantziaz jabetu guran**

AINZANE GARDOKI

Euskara Zerbitzuak eta Udal Euskaltegiak abian jarri dute bederatzi urtera bitarteko umeak dituzten gurasoei zuzendutako kanpaina. "Euskararen transmisio programaren barruan kokatzen dugu bultzatzen ari garen kanpaina", azaldu digu Euskara teknikari Mari Carmen Arrietak.

Helburua, bakarra: gurasoak jabetzea umei hizkuntza transmititzekoan duten garrantziaz. Horregatik, adin horietako umeak dituzten aita-ama guztiei *Etxetik hasi behar delako/ Porque hay que empezar por casa* liburuxka bidali zaie: "Bertan, hiru atal bereizten dira: guraso euskaldunei zuzendutakoa, euskaraz ez dakiten gurasoendakoa eta, azkenik, guraso mistoak osatzen dituztenendakoa. Txostentxo horretan, norberak duen goeraren inguruan, transmisioan zer egin, zer ez egin eta nola hobe dezaketen jakiteko aholkuak ematen zaizkie", esan digu Euskara teknikariak.



Postaz jasoko dute bederatzi urtera bitarteko umeen gurasoek liburuxka.

Txostenaren amaieran, euskara ikasi edo hobetu nahi duenari euskaltegiko informazioa ematen zaio: "Azken helburua ez da jendea euskaltegian matrikulatzea, baina jendeak hobetzeko nahia badu, aukera hor duela

jakin behar du". Kanpaina horrekin gurasoak sentsibilizatu nahi dituzte, kezka dituenari lagundu, "eta kezkarik ez duenari kezka hori sortzea ere egokia izan daiteke", gehitu du Mari Carmen Arrietak.



**Kaleetan, zikinkeria nagusi**

Herriko bizilagunen kexa jaso dugu, herriko auzo askotan zikinkeria nagusitzen ari delako egunetik egunera. Udalak horretan ardura badu ere, bizilagun askoren utzikeriak kaleetan zabor ugari izatea eragiten duela azpimarratu digute.

Edukiontzia beteta agertu dira aste honetan. Zaborra eta, batez ere, botatzeko diren gauza handiagoak (aulkia, mahaiak, koltxoak...) dagozkien egunetan ateratzeko eskaera egin nahi dute herri-tarrok.

**BOTEPRONTOAN**



**Filo Martínez**

Aingeru gasolindegikoa

**Gasolindegia zabaldu zutenetik hona -9 urte-dihardu han lanean. Umeak dituenetik, bizitza aldatu ei zaio goitik behera.**

**Hona etortzen direnen artean, zein jende mota duzu gogokoen?**

Nagusiak, berba egiten dizute-eta.

**Lan egiteko, negua ala uda?**

Uda, duda barik.

**Jaso duzun azken oparia?**

Jertse termiko bat, lanerako oso ondo datorkidana.

**Zer esango zenioke Aznarri gasolina hartzera etorriko balitz?**

Ez nioke aurpegira begiratu.

**Nori jarriko zenioke isuna?**

Umeak lanean esplotatzen dituztenei.

**Bizi izateko leku bat?**

Eguzkia duena. Alacant.

**Zer falta zaio Eskoriatzari?**

Gazteendako gauzak.

**Zenbat denbora eskaintzen diozu zeure buruari?**

Ezer ez. Umeak ditudantetik, akabo!

**Denbora luzeagoa izanez gero, zer egingo zenuke?**

Kirola.

**Irratia edo telebista?**

Ez bata ez bestea. Ez entzun eta ez ikusi.

**Irakurri duzun azken liburua?**

*Dulces mentiras.*

AINZANE GARDOKI

**ESTETIKA ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA**

**EDURNE**

Aranburuzabala, 42  
Tel.: 943 71 51 54  
ESKORIATZA



*Gustora egoteko!*

Intxaurtxueta 8  
**ESKORIATZA**  
943 71 40 63



**DORLETA**

Aranburuzabala, 22 behea  
**ESKORIATZA**  
Tfnoa.: 943 71 51 20



Tfno 714345

**MENDIOLA**

**Bazkari eta afariak**

**Astelehenetan itxita  
ESKORIATZA**



# Zerainek bisita egin zion Gatzagari, elkarren proiektuen berri jakiteko asmoz

AINTZANE GARDOKI

Joan den egubakoitzean, zeraindar talde txiki bat bisitan izan zen Gatzagan, euren herriko proiektuaren berri eman, eta Gatzagak hurbilago jakiteko. Udaletxean bilera egin, Gaztainuzketan bazkaldu eta arratsaldean museoan izan ziren.

Joan den egubakoitz eguerdian etorri ziren Zeraindik bertako udaleko ordezkari bat, museoko eta dendako arduradunak, konterbak egiten dituzten lagun bi, eta sagardotegi bateko eta nekazari etxe bateko arduradunak, besteak beste. Gatzagan, berriz, alkatea, kultura zinegotzia eta Museoko arduraduna izan zituzten harrera egiten.

## MUSEOA ETA DENDA EZKONDU GURAN

Gatzagako Udalak denda jarri gura du herritarrendako, eta alkatearen arabera, "kudeaketari dagokionez, denda museoarekin bat egitea nahiko genuke, hau da, pertsona berberak arlo bi horiek proiektu bakarrean uztartzea; horregatik jakin gura izan ditu-



Elkarren proiektuen berri eman zuten bileran

gu Zerainen eguneroko bizitzan dituzten arazoak". Zerain eta Gatzaga, biak hala biak, herri

txikiak dira, eta, gainera, badi-tuzte ezaugarri komun ugari. Zerainek herria biziberritzeko

proiektua aurrera nola atera duen jakin nahi izan du Gatzagak hurbiletik: "Eguneroko arazoak zein-

tzuk diren, denda bat aurrera ateratzeko, adibidez. Baina ez du arazorik nonbait, izan ere, Zerainen bi lagun egun osoz eta beste sei lagun orduka arduratzen diren museoaz, dendaz eta aterpetxeaz. Udalak ez du zentimo bakar bere ere jartzen, gainera", dio Agurreurretak. "Gure herriak izan garrizko potentziala dauka. Museoa eta ematen duen produktua bera oso berezia da, herria ondu kokatuta dago geografikoki, daukagun ingurua zoragarria da. Turismoaren sektoreak gora egingo duen dudarik ez dut. Hau atera beharra daukagu".

Museoa eta sortuko den dendak uztartzea du helburu gatzagako Udalak. Horretarako, deialdi publikoa egingo du laste Bitartean, beharrezko diren legezko pauso guztiak landu ditu Udalak, eta bestetik, proiektuaren diseinua eta bideragarritasun plana egiten hasiko da. "Ahal bezain laste proiektu hau errealitate bihurtu nahi dugu, eta herriari beharrezko duen zerbitzu hori eskaini", esan digu alkateak. Datozen asteetan, kontu horren berri gehiago izango da.

## HERRITARREN HITZA / Koldo Azkoitia

### Aurrera egiteko

Gure herriaz aritzen garenean, gatzaren produkzioak zuen garrantzia azpimarratzen dugu, eta neurri handi baten egia da, gatzak izan baitzen herriaren sormenaren arrazoi nagusia. Baina Leintz Gatzagak ezagutu duen garapen sozio-ekonomiko handiena XVI. eta XVIII. mendeen artean eman zen; urte haietan ikatzaren produkzioa eta, batez ere, herriaren zeuden zazpi burdinolak aipatzekoak. Bertatik irten ziren "El Escorial"-eko burdineri gehiena edo Compostelako "Mondragon Capilla"-ko burdinsarea. Zer esanik ez, denbora haietan

aktibitate sozial izugarria eta biztanleriaren gorakada nabarmena ezagutu zituen. 800 biztanle hartu zituen. Beraz, agerian, dibertsifikatze ekonomikoaren eragina handia izan zela garapen honetan.

Duela 10 urte bultzatutako 1go Herri Garapen Planaren ondorioz hainbat arlotan herriaren berreraikitze prozesuan pauso garrantzitsuak eman ziren: azpiegiturak



"Jarraitu beharreko ildoak, pertsonetan inbertitzea"

(ur depositua, kultur etxea, frontoia, etxebizitzak), turismoa eta garapen ekonomikoa (gatzaren fabrikaren birgaipena, Gaztainuzketako mendi etxeak, artisauen ekimenak, enpresa berrien kokapena (Jakion, Ihardun), aktibitate sozio-kulturalak (San Milixanak, kultur elkarteak). Guzti honen ondorioak agerian daude: biztanleriaren hazkuntza, hirigunearen birgaipena,

aktibitate sozio-ekonomikoa...

2. Herri Garapen Planaren erronka dugu. Hainbat gai dira jorratu behar direnak, batzuk dagoeneko abiatuta daudenak: haur eskola, gatzaren ekomuseoa, eta beste batzuk ikerketa prozesuan daudenak; basoen birgaipena eta zabalera handiko komunikazioak. Beste batzuk laburrean bideratuko direnak; saneamendu sarearen berriztapena, kultur aretoa, industrialdea, etxebizitzak.

Bi zutabe aurreikusten dira: dibertsifikatze ekonomikoa eta herritarren parte hartzea. Baina jarraitu beharreko ildoak: pertsonetan inbertitzea.

## LABUR

### Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsua osatu da

Pasa den azaroaren hasieran hasi zen Udala datuok jasotzeko etxetara bidali behar diren gainazalak banatzen.

Guztira 94 gainazal izan dira banatutakoak. Etxebakoitzean datuak eguneratu eta abenduaren 28rako bukatatu behar ziren udaletxera.

Arduradunaren esanetan herritar gehienek ondo errepetatu zuten jarritako datuak. Falta zirenak berriz, jarritako bigarren eperako, hau da, urtarrilak 11rako datuak udaletxean aurkeztu zituzten.

**FAGOR**



**ELEKTRATRESNA  
TXIKIKO  
NEGOZIOA**

Aingerugarda ibilbidea, z/g  
Tel.: 943 039 100 • 943 71 54 52 (SAT)



# ANA'S



ZABALDU BERRIA  
Aretxabaletako  
Iparragirre 4an.  
*Zatoz!*

## Gida 2002

**ZURE POSTONTZIAN LASTER...**

**Goiena**  
Komunikazio Zehatzak

Arrasate  
Aretxabaleta  
Eskoriatza  
Leintz Gatzaga  
Aramaio






Autoak  
garbitzeko  
tunela

## AINGERU gasolindegia

Gasteizko bidea, z/g. Tel.: 943 71 49 8. ESKORIATZA  
Ordutegia: 7:00-23:00



## AITZORROTZ garajea

Gasteizko bidea, z/g. Tel.: 943 71 42 94.  
ESKORIATZA